

## Lankidetza tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizleekin

EROSKIK hornitzaileekin duen elkarlana hiru ekintza-konpromiso nagusitan ardatzen du, tokiko nekazaritza elikadurako ETE-ekin:

- 1** Ekoizpen enpresa txikien produktuk kontsumitzaileen esku jartzea.
- 2** Mikroenpresak, ETEak eta kooperatibak aintzat hartzen dituen merkataritza kudeaketa garatzea.
- 3** Tokiko ekoizleak profesionalizatzeko eta haien enpresak hazteko planetan parte hartzea.

2019an, 1.774 alta berri izan ditugu tokiko/eskualdeko produktutan; haietatik 930 freskoak dira, eta 844, berriz, elikagaiak. Alta berri horiek 23 milioi eurotik gorako salmentak sortu dituzte.

Gainera, erakunde sektorialekin ditugun hitzarmenak berritzen eta berriak sortzen jarraitzen dugu, tokiko elikagaiak, jatorri deiturak (JD) eta adierazpen babestuak (AB) sustatzeko. Gaur egun, JDBko edo ABko 2.000 produktu baino gehiago ditugu: 1.600 ardo, JDBko 140 gazta, 100 landare kontserba, olio, lekale eta arroz, 300 haragiki eta 100 fruta eta barazki baino gehiago JDB eta AB deituekin. Gure marka propioan horrelako produktuen alde egiten dugun apustua agerian geratu da 2019an, erreferentzia berri hauek gehitzean: JDko sei gazta (horietako hiru, Idiazabal motakoak) eta 23 ardo, JDko hiru sargardo, JDko urdaiazpiko bat eta ABko patata bat.

Tokiko nekazaritza elikadurako ekoizleekin dugun harremana ezinbesteko elementua da lankidetza-eredu honetarako. Hori dela eta, aldizka biltzen gara, partekatzen dugun estrategia sustatzeko eta berritzeko; izan ere, bai EROSKIK baita ekoizle txikiak ere dute lehen sektorean aniztasuna sustatzeko nahia.

### Tokiko produktuen sustapena

Tokiko produktuen sustatzeko, EROSKIK haiekin lotutako kultura, gastronomia eta sukaldaritza balioak ere zabaldu eta sustatzen ditu. Azken urteetan, hurbileko produktuen eskaintza handitu dugu etengabe, eta, aldi berean, EROSKIn tokiko elikagai horien kontsumoa sustatzeko konpromisoa hartu dugu, gure kultura gastronomikoari, ekonomiari eta paisaiei eusteko bide bat dela uste dugulako.

Merkataritza dinamizazio horrek sasoiko produktu freskoe-tan jartzen du arreta, kontsumitzaileek bereziki estimatzen dituzte eta. Zentzu horretan, tokiko kanpainak egin ditugu Espainiako zenbait eskualde eta autonomia-erkidegotan, baita eskualdeko monografikoetan ere. Gainera, tokiko produktuen azokak antolatatu ditugu eta haietan parte hartu dugu, tartean:

- **Bilbon, Zaragozan eta Iruñean EROSKIren 50. urteurrenaren barruan antolatutako hiru azoka**
- **Bartzelonako hurbileko produktuen CAPRABO IV. Azoka**
- **Kataluniako Nekazaritza Kooperatiben Produktuekin egindako II. Jardunaldi Gastronomikoa**

### Diverhortaliza proiektua

Tokiko barietateen ekoizpena dibertsifikatzean datzan aukera bat da, eskualdeen arteko lankidetza eta ikerketaren bidez, Euskadi bezalako ingurune eta klima baldintza bereziak dituzten autonomia-erkidegoetarako.

### JDko bost hitzarmenen sinadura Balearretan

Lankidetza-hitzarmen batzuk sinatu ditugu Balearretatik ziurtatuta datozen produktuen sustatzeko: gaztak, ardoak, olibak, olioak eta sobrasada.

### Akordioa Arabako Nekazarien Elkartarekin (UAGA)

Azaroan sinatutako akordio honek Arabako nekazaritza produktuen sustapena eta garapena bultzatzen du.

